



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko ekainaren 26a

84. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-23/CCOI-00016. “Fontellasko Udala, 2023” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-23/CCOI-00016. “Fontellasko Udala, 2023” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Fontellasko Udala, 2023” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**AURKIBIDEA****ORRIALDEA**

I. SARRERA .....	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA.....	4
III. IRITZIA.....	4
IV. IRITZIAREN OINARRIA.....	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK .....	7
VI. ENFASI-PARAGRAFOA.....	7
VII. FONTELLASKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA.....	7
VIII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	8
IX. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK .....	9
1. GEHIGARRIA. FONTELLASKO UDALAREN KONTU OROKORRAREN LABURPENA, 2023KO EKITALDIA .....	10
2. GEHIGARRIA. FONTELLASKO UDALA.....	12
2.1. Informazio orokorra .....	12
2.2. Egindako jarduera .....	13
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	14
4. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO OHARRAK ETA AURKITUTAKO BESTE GORABEHERA BATZUK.....	15
4.1 2023ko aurrekontu orokorra.....	15
4.2 2023ko Kontu Orokorra.....	15
4.3 Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2023-12-31n .....	18
4.4 Barne-kontrola.....	18
4.5 Langileria-gastuak.....	19
4.6 Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak.....	22
4.7. Inbertsioak.....	23
4.8 Transferentzia-gastuak.....	24
4.9 Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.....	24
4.10 Transferentziengatiko diru-sarrerak .....	26
4.11 Ondare bidezko diru-sarrerak.....	27
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK .....	28
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA .....	31

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2024rako bere fiskalizazio-programan sartu zuen Fontellasko Udalaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa, eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eskaera bati erantzuten dio. 2023ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio finantzarioa egin da, legedi-betetzearen fiskalizazioarekin batera.

Landa-lana 2024ko abendutik 2025eko urtarrilera bitartean egin zuen lantalde batek, zeina auditoretzako hiru teknikarik, sistema informatikoetako erdi-mailako teknikari batek eta auditore batek osatu baitzuten. Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboek laguntza eman zuten.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, lan honen emaitzak jakinarazi egin ziren, Fontellasko Udaleko alkateak alegazioak aurkez zitzaizkion. Ezarritako epea igarota, alkateak alegazioak aurkeztu ditu, eta txosten honetan jaso dira, Ganbera honen erantzunarekin batera.

Eskerrak ematen dizkiegu Fontellasko Udaleko langileei, lan hau egiteko emandako laguntza-rengatik.

## II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Gure lanaren xedea izan da gai hauei buruzko iritzia ematea:

- Ea Kontu Orokorrak irudi fidela adierazten duen, alderdi esanguratsu guztietan, 2023ko abenduaren 31n zegoen ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari dagokienez, aplikatu beharreko arau-esparruarekin bat etorri eta, bereziki, hor jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideekin bat etorri.

- Ea udalak 2023ko ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta Kontu Orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

Honako hauek osatzen dute lanaren norainokoa:

- 2023ko ekitaldiko Kontu Orokorra, zeinaren edukia baita aurreikusita dagoena irailaren 21eko 273/1998 Foru Dekretuan, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Bakuneko Jarraibidea onesten duen horretan.

- 4. gehigarrian adierazitako laginekin zerikusia duten eragiketak.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoak 2023ko ekitaldia hartzen du, baina beste ekitaldi batzuei buruz ere egin dira behar ziren egiaztapenak, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

## III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, bera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Fontellasko Udalaren 2023ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du. Halaber, aipatu araudiari jarraituz, Udalaren legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin du.

### III.1. AUDITORETZA FINANTZARIOKO SALBUESPENDUN IRITZIA

Gure iritziz, gure txostenaren "Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria" atalean azaldutako zertzeladen efektuengatik izan ezik, Kontu Orokorrak irudi leiala erakusten du, alderdi esanguratsu guztietan, Udalak 2023ko abenduaren 31n zituen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere jarraiturik informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, hor jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-arloko printzipio eta irizpideei.

### III.2 LEGEDI-BETETZEARI BURUZKO ALDEKO FISKALIZAZIOKO SALBUESPENDUN IRITZIA

Gure ustez, gure txostenaren "Legedi-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria" atalean azaltzen ditugun aferen ondorioengatik izan ezik, eta egindako lanaren norainokoa aintzat hartuta, 2023ko ekitaldiko Kontu Orokorrean islatutako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

## IV. IRITZIAREN OINARRIA

Gure fiskalizazioa egin dugu kanpo-kontrolako erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz eta, zehazki, ISSAI-ES 200 eta 400 arauetan ezarritakoari jarraituz, zeinak finantza-arloko eta legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioen gainekoak baitira. Halaber, bete ditugu kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoak. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, Kontu Orokorraren eta legedi-betetzearen gainean gure txostenean egiten den fiskalizazioari buruzkoan.

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, Kontu Orokorrari buruzko gure fiskalizazioan aplikatzekoak diren etika-eskakizunekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentiak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen dio finantzen eta legedi-betetzearen gaineko gure iritziari.

### IV.1. FINANTZA-AUDITORETZAKO SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

Gure iritziarekiko salbuespen dira honako alderdi hauek:

- Aurrekontu-emaitza

Aurrekontu-emaitza 27.193 euro negatibokoa da. Idazkari eta kontu-hartzailearen txostenean eta gure kalkuluetan jasotako desbideraketak gogoan hartzen badira, Eguneko zentroari dagokion desbideraketa ez baita barnean sartu, aurrekontu-emaitza 5.365 euro negatibokoa da.

- Ekonomia-emaitza

Espedienteko ekonomia-emaitza alden du egiten da gure berrikuspenean kalkulatuta dagoen horretatik, haren datuetan aurkitu ditugun alde batzuen ondorioz; gehienbat, diru-sarrera jakin batzuk emaitza-kontuaren hartzekoan ez sartzeagatik. Halatan, emaitza kalkulatua 47.622 euro positibokoa litzateke, eta aurkeztua, berriz, 47.020 euro negatibokoa da.

- Balantzea: ibilgetua eta inbentarioa

Udalak 2021eko abenduaren 31ko eguneraketa duen inbentario bat dauka, 12.616.069 euroko balioa duena eta hiru urtean behin kanpo-enpresa batek berrikusteko modukoa dena.

Alabaina, balantzean agertzen den balioa 11.354.228 eurokoa da (2011tik aldaketarik gabe), eta, gainera, ez du barne hartzen NFKA-Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak udalari lagatako ondasun bat, zeinak balantzearen aktiboan egon beharko bailuke, pasiboan egon ordez.

Egiaztatu da kanpo-enpresak 2021eko abenduan eginiko inbentarioa baliioduna dela. Horri gehitu beharko litzazkioke 2022an eta 2023an izandako altak, gastuena den seigarren kapituluaren araberakoak, zeinek 1.427.376 euro egiten baitute. 2023ko abenduan suertatzen den amaierako saldoa 14.088.445 eurokoa da, eta hala jaso behar da balantzean.

## IV.2 LEGEDI-BETETZEARI BURUZKO ALDEKO SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

Legedi-betetzeari buruzko gure iritziarekiko salbuespen dira honako gai hauek:

- Lotura-poltzen kreditua gainditu egin da 26 poltsetako 11tan, 194.065 euroan; 2023an aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko zazpi egiten du horrek.
- Diruzaintza-gerakinaren kargura eginiko bi aurrekontu-aldaketetako bat, 793.589 eurokoa, ez da izapidetu toki-mailako aurrekontu-araudian ezarritako prozedurari jarraituz.
- Munta txikiko kontratu gisa izapidetu dira segidako zerbitzu-emateak eta hornidura errepikakorrak, nahiz eta horien balio zenbatetsiak gainditu egiten duen araubide horren bidez izapidetuak izateko onarzen den gehieneko zenbatekoa. Oker izapideturiko gastua 120.985 eurokoa izan da; hots, 2. kapituluko gastuaren guztizkoaren ehuneko 12. Honako zerbitzu eta hornidura hauei dagokie:

Kontratua	Gastua (BEZa barne)
Energia- eta gas-hornidura (1. hartzekoduna)	37.963
Energia- eta gas-hornidura (2. hartzekoduna)	25.770
Energia- eta gas-hornidura (3. hartzekoduna)	16.166
Kultur etxearen mantentze-lanak	11.239
Udalaren hirigintza-aholkularitza	13.521
Kontabilitate-aholkularitza	9.438
Web-orriaren mantentze-lanak	6.888
<b>Guztira</b>	<b>120.985</b>

- Obra-kontratuen bi espediente berrikusiek honako urraketa hauek ageri dituzte:
  - Kontratazioa arautzeko pleguetan ez da zehaztu gaitasun teknikoari buruzko irizpiderik, ez eta exekuzio-baldintza berezirik ere, kontratazio-araudiak agintzen duenaren kontra.
  - Kontratazio Atarian ez da ageri kontratazio- eta gardentasun-araudiak ezartzen duenaren araberako kontratu-amaieraren iragarpenik.
  - "Eguneko zentro"-rako obra-kontratuan 75.756 euroko desbideraketa egon da exekuzioan. Desbideraketa horrek zenbateko esleituaren ehuneko 16 egin du; hala ere, kontratua ez da aldatua izan, nahiz eta kontratazio-araudiak horretara behartzen duen.
- Udalak eta entitatearen aurrekontuetan jasota dauden izendun dirulaguntzen onuradunek ez dituzte sinatu dirulaguntza-araudiak xedatutakoaren arabera beharrezkoak diren hitzarmenak, non jasoko baitira udalari eta onuradunei exijitzekoak diren baldintzak eta konpromisoak. Onuradunek gastua kasuko fakturak aurkeztuz justifikatu badute ere, ezin izan da egiaztatu araudian eta aurrekontu-exekuzioko oinarrietan ezarritako gainerako betekizunak bete direnik.
- Ordainarazpen bidezko diru-bilketaren kudeaketako prozesuan ez da aplikatu ez errekaru exekutiboaren ehuneko bosta, ez eta berandutze-interesak ere, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrak agintzen duen bezala. Jaso gabe gelditu den kopurua ezin izan da zenbatetsi.

## V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko Kontu Orokorrari egin diogun fiskalizazioan. Gai horiek Kontu Orokorraren osotasunari buruzko gure auditoretzaren testuinguruan eta Kontu Orokorrari buruzko gure iritzia taxutzerakoan jorratuak izan dira, eta ez goaz bereiz adieraztera afera horiei buruzko iritzirik.

Txosten honetako “Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria” atalean eta “Legedi-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria” atalean azaldutako gaiak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan giltzarritzat jotako inongo gairen berri ematen.

## VI. ENFASI-PARAGRAFOA

Honi buruz ohartarazi nahi dugu bereziki: 2023ko Kontu Orokorrak aldaketa esanguratsuak ditu; besteak beste, honako egoera-orri eta adierazle hauetan:

	2022*	2023	Aldea (%)
Aurrekontu-emaitza	1.495.370	-27.193	-102
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	1.680.595	917.898	-45
Aurrezki garbia	1.424.578	-295.096	-121

\*Auditatu gabeko ekitaldia

Aldakuntza horien arrazoia da 2022an EIOZen aparteko diru-sarrera bat egon zela, 1.368.634 eurokoa, udal-barrutian parke eoliko bat ezarri zela-eta. Horrek itxuraldatu egiten du bi ekitaldien arteko diru-sarreraren zifren alderaketa.

Osoki 2022an kobratu zenez, ekitaldi horren itxierako diruzaintza-gerakinaren egoera-orrian behar bezala jaso izan zen. 2023an, likidezia handiago hori baliatu zen inbertsio handiagoak finantzatzeko, bai eta Udalak zuen zor osoa aurrez amortizatze ere.

Hori horrela, adierazle horiek negatiboak izatea, edo nabarmen txikitu izana, ez da, inola ere, Udalaren inongo aurrekontu-arriskuren edo -ezintasunen adierazgarri.

## VII. FONTELLASKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Udaleko idazkaritza/kontu-hartzailletza da kontu orokorra egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu entitatearen aurrekontu-likidazioa, ondarea, finantza-egoera eta emaitzak, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoaren arloko araudia beterik.

Halaber, Udalak bermatu beharko du aplikatzekoa den araudiarekin bat datoze aipatu kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa.

Haren erantzukizuna da, gainera, beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatu ahal izateko Kontu Orokorrean ez dagoela iruzurraren edo errorearen ondoriozko oker materialik eta egindako jardueran ez dagoela lege-urratzerik.

Udaleko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 15ean onetsi zuen Kontu Orokorra.

### VIII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak dira honako hauek egiaztatzea arrazoizko ziurtasunez: Kontu Orokorraren osotasunean ez dagoela iruzur edo errorearen ondoriozko errore materialik, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, erregulartasunari buruzko fiskalizazio-txosten bat eman ahal izateko, zeinak gure iritzia jasoko baitu.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik errore material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo errorearen ondorio izaten ahal dira, edo legea ez betetzearen ondorio, eta oker materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta eta zentzutasunez aurreikusten ahal bada eragina izanen dutela txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan.

Kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskalizazio baten parte gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditorretza osoan. Gainera:

- Kontu orokorrean iruzur edo errorearen ondoriozko oker materialak egoteko arriskuak identifikatu eta balioesten ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatzeko eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritziari oinarria emateko. Iruzuraren ondoriozko oker material bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko oker materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izaten ahal dira kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Barne-kontrola dela-eta fiskalizatorako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik emate aldera.

- Ebaluatzen dugu ea aplikaturiko kontabilitate-politikak egoki diren, eta arrazoizkoak ote diren kontabilitate-estimazioak nahiz kudeatze-organoak emandako informazioa.

- Kontu orokorraren aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta aztertzen dugu ea kontu horrek zehatz irudikatzen dituen transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara; besteak beste, planifikatutako auditoretza-proben norainokoari eta horiek egiteko uneari dagokienez, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuei eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri dagokienez ere. Entitateko gobernu-organoari jakinarazi zaizkion alderdien artean, zehazten dugu zein izan diren Kontu Orokorraren fiskalizazioan garrantzi handienekoak eta, horrenbestez, zein diren auditoretzako gai giltzarriak.

**IX. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK**

Ganbera honen iritziz garrantzitsuenak diren gomendioak jasoko ditugu hemen:

- *Barne-kontrol handiagoa ezartzea, bai kontabilitate-eragiketen azterketan eta saldo-arazketan, bai nominak egiteaz arduratzen den lan-arloko kanpoko aholkularitza-etxeak Udalarentzat egiten duen lanaren gainbegiratzeari.*

- *Gasturik ez egiteko ahaleginak egitea aurrekontu-kreditu egoki eta behar bestekorik ez dagoenean; horretarako, aldezturik izapidetzea, kasua bada, beharrezkoak izan daitezkeen aurrekontu-aldaketak.*

- *Sinadura mankomunatu ezartzea banku-funtsak baliatu ahal izateko, eta banku-erakunde guztietan eskatzea aldatzea.*

- *Kontratu bakoitzeko plegu arautzaileetan kasuko kaudimen teknikoko baldintzak sartzeari, bai eta exekuzio-baldintza berezi bat ere, gutxienez, kontratu-arloko araudiak xedatzen duen eran.*

- *Modu eta epe egokian izapidetzea kontratu-aldaketak, kontratu-arloko araudiak xedatzen duenari jarraituz.*

- *Kontratuen amaiera-iragarkiak Kontratazio Atarian argitaratzea.*

- *Emakida zuzeneko araubideko dirulaguntzak dokumentatzea, eta, dirulaguntzen araubideari jarraituz, dagokion lankidetzaren hitzarmena zehaztea, edo, halakorik egon ezean, alderdien eskubiak eta betebeharrak ezartzea emakida-ebazpenean, bai eta legez ezarritako eskakizunak ere.*

- *Epearen barruan dauden betearazpen-bideko zorrak kudeatzea, ehuneko bosteko nahitaezko gainkargu exekutiboa aplikatuz, bai eta legez exijitutako berandutze-interesa ere.*

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

**1. GEHIGARRIA. FONTELLASKO UDALAREN KONTU OROKORRAREN LABURPENA, 2023KO EKITALDIA<sup>1</sup>****2023ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria****Gastu-aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa**

GASTUAK	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Ordainketa	Ordainketa-ren %	Betetakoaren %
Langileria-gastuak	437.600		437.600	464.039	463.776	100	106
Ondasun eta zerbitzuetan egin-dako gastu arruntak	940.025		940.025	1.012.570	955.311	94	108
Finantza-gastuak	15.400		15.400	8.172	8.162	100	53
Transferentzia arruntak	11.750		11.750	10.296	9.546	93	88
Inbertsio errealak	557.000	587.000	1.144.000	995.925	994.242	100	87
Pasibo finantzarioak	39.511	327.589	367.100	367.100	367.100	100	100
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>2.001.286</b>	<b>914.589</b>	<b>2.915.875</b>	<b>2.858.102</b>	<b>2.798.137</b>	<b>98</b>	<b>98</b>

**Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa**

DIRU-SARRERAK	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobranta	Kobranta-zaren %	Betekoaren %
Zuzeneko zergak	552.001		552.001	608.021	503.290	83	110
Zeharkako zergak	15.300		15.300	23.887	18.432	77	156
Tasak, pr. pb.-ak eta bestelako diru-sarrerak	130.660		130.660	165.861	152.800	92	127
Transferentzia arruntak	603.125		603.125	594.585	594.155	100	99
Ondarezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprob.	163.900		163.900	174.727	116.184	66	107
Kapital-transferentziak eta bestelako kapitaleko diru-sarrerak	536.300		536.300	542.816	342.595	63	101
Finantza-aktiboak	0	914.589	914.589	0	0		
<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>2.001.286</b>	<b>914.589</b>	<b>2.915.875</b>	<b>2.109.897</b>	<b>1.727.456</b>	<b>82</b>	<b>72</b>

**2023ko ekitaldiko aurrekontu-emaizta**

Kontzeptua	2022*	2023
Aitortutako eskubide garbiak	3016.955	2.109.897
Aitortutako betebeharrak garbiak	1.871.374	2.858.102
<b>Aurrekontu-emaizta</b>	<b>1.145.580</b>	<b>-748.205</b>
Doikuntzak		
Finantza-emaiztaren desbideratze positiboa	50.276	6.956
Finantza-emaiztaren desbideratze negatiboa	177.303	-
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	222.762	727.969
<b>Aurrekontu-emaizta doituak</b>	<b>1.495.370</b>	<b>-27.193</b>

\*Auditatu gabeko ekitaldia

<sup>1</sup> Bat datoz Udalak onetsitako egoera-orri finantzarioekin.

## 2023ko diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2022*	2023	Aldea (%)
<b>+Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>145.366</b>	<b>423.495</b>	<b>191</b>
+Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	108.380	382.441	
+Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	200.383	206.069	
+Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	14.505	16.903	
-Bilketa zaileko eskubideak	177.901	181.918	
<b>-Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	<b>283.299</b>	<b>249.602</b>	<b>-12</b>
-Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	64.061	59.965	
-Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	36.935	39.386	
-Aurrekontuz kanpoko gastuak	182.303	150.250	
<b>+Diruzaintzako funts likidoak</b>	<b>2.015.510</b>	<b>921.501</b>	<b>-54</b>
<b>+Finantzetaren desbideratze metatu negatiboak</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>=Diruzaintzako gerakina, guztira</b>	<b>1.877.577</b>	<b>1.095.394</b>	<b>-42</b>
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikiko gastuengatikoa	0	0	0
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiengatikoa	196.982	177.496	-10
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.680.595	917.898	-45

\*Auditatu gabeko ekitaldia

## Egoera-balantzea, 2023ko abenduaren 31koa

Deskribapena	2022*	2023
<b>Ibilgetua</b>	<b>11.354.228</b>	<b>11.354.228</b>
Ibilgetu materiala	11.054.382	11.054.382
Ibilgetu ez-materiala	0	0
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	299.846	299.846
Herri-ondasunak	0	0
Ibilgetu finantzarioa	0	0
Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	0
<b>Zirkulatzailea</b>	<b>2.338.778</b>	<b>1.526.913</b>
Itxitako aurrekontuetako zordunak eta aurrekontuz kanpokoak	214.888	222.971
Aurrekontuko zordunak	108.380	382.441
Kontu finantzarioak	2.015.510	921.501
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>13.693.005</b>	<b>12.881.141</b>

\*Auditatu gabeko ekitaldia

Deskribapena	2022*	2023
<b>Funts berekiak</b>	<b>13.042.605</b>	<b>12.631.538</b>
Ondarea eta erreserbak	12.486.804	12.077.546
Entregaturiko ondasun eta eskubideak	601.012	601.012
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-45.212	-47.020
<b>Epe luzeko zorrak</b>	<b>367.101</b>	<b>1</b>
Jesapenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	367.101	1
<b>Epe laburreko zorrak</b>	<b>283.299</b>	<b>249.602</b>
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	219.238	189.637
Aurrekontuko hartzekodunak	64.061	59.965
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>13.693.005</b>	<b>12.881.141</b>

\*Auditatu gabeko ekitaldia

## 2023ko ekitaldiko aurrekontu-emaitza

## Zorra

Deskribapena	2022*	2023
61 Langile-gastuak	429.478	464.039
62 Finantza-gastuak	12.654	8.172
64 Lanak, hornidurak eta kanpo-zerbitzuak	912.714	1.012.570
67 Transferentzia arruntak	9.776	10.296
68 Kapital-transferentziak	0	0
69 Kalkulatutako gastuak	0	0
D80 Ekitaldiko emaitza arrunt negatiboa	0	-23.063
D82 Salmenten eta inbertsioen ataleko galerak eta aparteko beste galera batzuk	0	0
D83 Aktibo finantzarioen salmentengatiko galerak	0	0
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	112.530	23.956
D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	-45.212	-47.020

\*Auditatu gabeko ekitaldia

## Hartzekoa

Deskribapena	2022*	2023
70 Salmentak	151.665	165.861
71 Jabetza- eta enpresa-errenta	118.950	174.727
72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	63.836	66.378
73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	418.905	366.114
76 Transferentzia arruntak	584.524	594.585
77 Kapitalaren gaineko zergak	94.062	104.349
78 Beste diru-sarrera batzuk	0	0
H80 Ekitaldiko emaitza arruntak	67.319	0
H82 Inbertsioen salmentako irabaziak	0	0
H83 Finantza-aktiboen salmentaren irabaziak	0	0
H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	0	0
H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	0	0

\*Auditatu gabeko ekitaldia

## 2. GEHIGARRIA. FONTELLASKO UDALA

## 2.1. INFORMAZIO OROKORRA

Fontellas Tuterako merindadeko udalerria da. 22 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 1.005 biztanle zeuzkan 2023ko urtarrilaren 1ean.

Udalak ez dauka ez erakunde autonomorik, ez merkataritza-sozietaterik eta ez zerbitzu publikoen kudeaketarako bestelako erakunderik.

2023ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Udalaren datu ekonomiko nagusiak eta langileria-arlokoak:

Erakundea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2023ko abenduaren 31n
Udala	2.109.897	2.858.102	16

Udala, halaber, honako toki-erakunde hauetako kide da:

a) Buñuel aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

b) Hiri-hondakinak bildu eta tratatzeko Erriberako Mankomunitatea.

c) Nafarroako Erriberaren Garapen Estrategietarako Partzuergoa (Eder partzuergoa), turismo-sustapeneko jardueretarako.

Zerbitzu horiek guztiek 26.900 euroko gastua ekarri diote Udalari.

## 2.2. EGINDAKO JARDUERA

Honako hauek dira Udalak ematen dituen zerbitzuak eta horiek kudeatzeko modua:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa	Zeharkako kudeaketa	Mankomunitatea
	Udala	Zerbitzu-kontratua	
Argiteria publikoa	X		
Hilerria	X		
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea			X
Kale-garriketa	X		
Parke publikoa	X		
Liburutegi-ludoteka	X		
Gizarte-zerbitzuak			X
Kirol-instalazioak	X		
Hirigintza	X		
Udaltzaingoa	X		
Kulturaren eta kultur ekipamenduen sustapena	X		
Ikastetxe publikoak	X		
Berdintasunaren sustapena	X		
0-3 urtekoen ikastetxeak		X	
Musika Eskola	X		
Eguneko zentroa		X <sup>2</sup>	

Taulan jasotako informazioaz gain, kontuan hartu behar da honako zerbitzu publiko hauei buruzko informazio hau:

Uraren ziklo integrala eta estolda-sarea	Tuterako Uren Udal Batzarra
Turismo-jardueraren sustapena	Eder Partzuergoa

Uraren ziklo osoaren zerbitzuari eta estolda-sareari dagokienez, esan behar da Tuterako Uren Udal Batzarra Tuterako Udalaren erakunde autonomo bat dela.

<sup>2</sup>2024ko ekitalditik aurrera

### 3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Udalari 2023an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

#### **Estatuko araudia**

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, Merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-jasangarritasunari buruzkoa, eta hori garatzeko araudia.
- 2/2015 Legegintzako Errege-dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 31/2022 Legea, abenduaren 23koa, Estatuko 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen gastuen arloan aplikatu beharreko xedapenak).
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema taxutzen duena.

#### **Foru araudia**

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, aurrekontuari eta gastu publikoari buruzkoa; 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, aurrekontu-egiturari buruzkoa, eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Orokorreko Instrukzio Orokorra onestekoa.
- Udalaren 2023ko aurrekontuaren exekuzio-oinarriak eta udalaren gainerako barne-arauak.

#### **4. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO OHARRAK ETA AURKITU-TAKO BESTE GORABEHERA BATZUK**

Jarraian, ohar, iruzkin eta informazio gehigarri batzuk jaso ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gertatzen ahal direnak.

Orobat, gehitu ditugu Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetze aldera Ganbera honen ustez beharrezkoak diren gomendioak.

##### **4.1 2023KO AURREKONTU OROKORRA**

Fontellasko Udaleko osoko bilkurak 2023ko otsailaren 9an eman zion behin betiko onespena aurrekontuari, eta 2023ko martxoaren 13an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurre-rantzean, NAO). Behin betiko onespena eman zitzaion eta indarra hartu zuen arte, 2022ko aurrekontua luzatu zen, 2022ko abenduaren 30eko alkatearen ebazpenean xedatutakoari jarraituz.

Udalaren 2023rako hasierako aurrekontuan jasotako gastuen eta diru-sarreraren hasierako aurreikuspena 2.001.286 eurokoa zen.

914.589 milioiko aurrekontu-aldaketa batzuk egin ostean –hasierako kredituen ehuneko 46 egiten dute–, behin betiko aurreikuspenak 2.915.875 eurokoak izan ziren. Aldaketen guztizko zenbaitzekoaren ehuneko 64k inbertsio errealean seigarren kapituluari eragiten dio, eta gainerako ehuneko 36ak, pasibo finantzarioen kapituluari.

Bi aurrekontu-aldaketa egin dira, osoki aurreko ekitaldiko diruzaintza-gerakinaren kargura finantzatuak. Lehenengoa, 793.589 eurokoa, ez da bereiz izapidetu, ez eta legez ezarritako prozedura-eskakizunei jarraituz ere, 2023rako aurrekontuaren onspen-prozeduran sartua izan baita.

##### **4.2 2023KO KONTU OROKORRA**

Alkatearen 2024ko martxoaren 15eko ebazpenaren bidez, 2023ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioko espedienteak onetsi zen. Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 15ean onetsi zuen Kontu Orokorra; eta, beraz, bi espedienteentzat arauak ezarritako epea bete egin da.

Alabaina, espedienteak 2024ko azaroaren 5ean bidali zitzaion Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari, alde handiz gaituz, beraz, Kontu Orokorra onesten denetik aurrerako 15 eguneko epea, tokiko aurrekontu-araudiak ezartzen duena.

Egindako azterketatik, honako akats hauek azpimarratzen ditugu:

- Honako egoera-orri eta txosten hauek ez daude jasota Kontu Orokorrean:
  - Finantzaketa atxikiko gastuak.
  - Tasa eta/edo prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuen kalkuluari buruzko oroitidazkia.
  - Kontu Orokorren edukari buruzko oroitidazkia.

- Diruzaintza

Udalan, zenbait finantza-erakunderen 23 kontu daude jasota. Horietatik hamarretan, hasierako eta amaierako saldoa zero gisa dago jasota; hortaz, pentsatzekoa da bertan behera utzita daudela.

Banku-kontuetako sinadura baimenduei dagokienez:

- Finantza-erakunde bati eskatutako informazioa falta da.
- Banku-kontu batean, hiru titularrek dute, bereizgabeki, sinadura; baina, berez, mankomunatua izan beharko litzateke, gutxienez biren artekoa.
- Beste banku-kontu batean, hiru titularren sinadurak jasota badaude ere, finantza-erakundeak ez du zehazten zein den sinadura-araubidea.

Egin ditugun egiaztapenetatik, ia ordainketa-eragiketa guztiak (banku-transferentzien fitxategiak dira gehienak) langile publiko bakar batek egiten ditu, eta ez dago jasoa idazkari kontu-hartzailearen sinadurarik.

- Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak eta zordunak
  - Udalak berak jasotako kobrantzak eta fidantza-ordainketak erregistratzeko darabilen kontabilitate-jardunbidea ez da zuzena, eta horrek zaildu egiten du fidantza horien jarraipena eta kontrola egitea. Alabaina, behin urritasun horiek Udalari jakinarazi zaizkionean, zenbait saldo aztertu eta erregularizatu dira.
  - 2019ko ekitaldiari dagozkion zenbait diru-sarrerera aplikatzeko daude, 17.206 euroko zenbatekoaz; ez da arrazoizkoa horiek diru-sarrereren aurrekontuari aplikatu ez izana.
  - BEZari dagokionez, urritasunak hauteman ditugu egindako likidazioetan eta horiei dagokien kontabilizazioan. Edonola ere, 2025eko urtarrilean, zegokion erregularizazioa egin zuen Udalak Nafarroako Foru Ogasunarekin (aurrerantzean, NFO).
  - Aplikatzeko dauden ordainketen ia saldo osoa 2017ko ekitalditik dator; NFOrekin egin beharrekoak diren eta kontabilizatzeko eta likidatzeko dauden konpentsazio batzuek eragina da.

- Itxitako ekitaldietako gastu eta diru-sarrerak
    - Itxitako aurrekontuetako gastu eta diru-sarrereren txostenetan zenbait saldo negatibo ageri dira, aurrekontu-kodetze desegokia egin delako.
    - Ordaintzeko eta kobratzeko gisa jasota dauden zenbateko batzuk oso antzinakoak dira, eta ezin izan dugu ebaluatu horien arrazoizkotasuna.
    - Diru-sarrereri dagokienez, Udalak kontabilitateko baja egiten die lau urtetik gorako antzinasuna duten kobratzeko zenbatekoek; dena den, zor horiek izapidetan jarraitzen dute bide exekutiboan.
- Zor horien zatiak kobratu ahala, uneko ekitaldiko diru-sarrereren aurrekontuan aplikatzen dira berriz, aurrekontu-aplikazio berariazko batean. Hori horrela, aurrekontu-egozpen bikoitza gertatzeaz gainera, bilketa-aplikazioko kobratzeko zenbatekoak ez datoz inoiz bat kontabilitateko kobratzeko zenbatekoekin.

Hori guztia kontuan hartuta, hau gomendatzen dugu:

- *Kontu Orokorraren espedientea osatzea araudiak eskatzen duen dokumentazio guztiarekin, eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari bidaltzea ezarritako epearen barruan.*
- *Aurrekontu-aldaketak araudiaren arabera izapidetzea; hau da, aurrekontu-onespeneko prozeduratik bereizitako izapide gisa.*
- *Aurrekontuko emaitzen egoera-orriek eta diruzaintza-gerakinari eragiten dioten finantzaketa-desbi-deratze guztiak aipatzea.*
- *Kontabilitate-kodetze osoa berraztertzea, eta hori irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretura egokitztea (Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura onesten duena).*
- *2021eko abenduaren 31n zenbatetsitako inbentarioaren arabera eta geroago urtero egindako inbertsio eta bajen arabera eguneratzea egoera-balantzeko ibilgetu-balioa.*
- *Diruzaintzako egoera-orrian ageri diren banku-kontu guztiak berraztertzea, eta bertan behera utzita dauden guztiak kentzea.*
- *Kontabilitateko operatibo egokia erabiltzea fidantzak erregistratzeko, horrela banakako kontrola bermaturik; halaber, kontabilitate-saldoaren erregularizazioa burutzea.*
- *Kontabilitate-saldo guztiak berraztertzea, diru-sarrererenak zein aplikatzeko dauden ordainketenak, eta ezeztatu beharrekoak ezeztatzea.*
- *Hiruhileko bakoitzean, BEZaren aitortpena NFOri aurkeztu baino lehen, erkaketa egitea, ziurtatzeko hor jasotako eragiketak bat datozela kontabilizatutakoekin.*
- *Itxitako ekitaldietako saldoak aztertzea eta garbitzea, zaharrenak bereziki.*

- *Itxitako ekitaldietako zordunen kontabilizazio okerra zuzentzea, kobratzeko dauden kontabilitate-saldoak bat etor daitezen biltzeko daudenekin.*

### Aurrekontu-likidazioa

2023an, gastuak 2.858.102 eurokoak izan ziren, ehuneko 98ko betetze-mailarekin. Gastu horiek 2022koak baino ehuneko 53 handiagoak izan ziren.

Diru-sarrerei dagokienez, 2023an 2.109.897 euroko eskubideak aitortu ziren, ehuneko 72ko betetze-mailarekin. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, diru-sarrerak ehuneko 30 murriztu dira.

Edonola ere, diru-sarreretan zein gastuetan bi ekitaldien artean egon den aparteko aldaketa testuinguruan jarri behar da, Enfasi-paragrafoan adierazi dugun eran.

Taula honetan jaso dira Udalaren gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan, aurreko ekitaldikoekin alderatuta:

Gastuaren izaera	% 2022*	% 2023	Finantzaketa-iturria	% 2022*	% 2023
Langileak	23	16	Tributu bidezko diru-sarrerak	67	33
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	48	32	Transferentziak	29	54
Transferentziengatiko gastuak	1	1	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	4	13
Inbertsio errealak	25	35			
Finantza-zama <sup>3</sup>	3	14			
Guztira	100	100		100	100

\*Auditatu gabeko ekitaldia

Gastuen eta diru-sarreren aurrekontuaren egitura oso desberdina bada ere bi ekitaldien artean, azpimarratzen dugu 2022ko ekitaldian EIOZak eragindako diru-sarrera arrunten hazkunde nabarmenagatik gertatu dela hori, eta 2023ko ekitaldiko gastua handiagoa izan delako. Horrek azaltzen ditu osagai bakoi-tzak guztizko aurrekontuarekiko pisu erlatiboan izandako aldaketak.

### Aurrekontu-likidazioaren adierazleak

Jarraian, 2022ko eta 2023ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin zerikusia duten adierazle batzuen alderaketa erakusten dugu:

Adierazleak	2022*	2023	Aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	3.016.955	2.109.897	-30
Aitortutako betebeharrak, guztira	1.871.374	2.858.102	53
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	2.819.500	1.567.081	-44
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	1.351.968	1.486.905	10
Kapitaleko diru-sarrerak	197.454	542.816	175
Kapitaleko gastuak	476.452	995.925	109
Saldo ez-finantzarioa	1.175.880	-381.105	-132
Aurrekontu-emaiza doituak	1.495.370	-27.193	-102

\*Auditatu gabeko ekitaldia

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmentzen dugu:

- 2023an, gastu-aurrekontuaren betetzea ehuneko 53 handiagoa izan da aurreko ekitaldikoa baino. Edonola ere, igoera handiena kapital-gastuetan gertatu da, zeinak ehuneko 109 hazi baitira; funtzionamendu-gastuak, aldiz, ehuneko hamar hazi dira.

<sup>3</sup> Finantza-zamak barnean hartzen ditu urteko mailegu-amortizazioak eta interesak.

Bestalde, kontuan izan behar da zor osoa aurrez amortizatu izanaren eragina; 367.100 euroko gastua eragin du finantza-pasiboen kapituluan, aurreko ekitaldiko 30.300 euroen aldean.

- Diru-sarrerak ehuneko 30 murriztu dira, diru-sarrera arruntak murriztu direlako nagusiki; kopuru absolututan, 1,25 milioi murriztu dira (ehuneko 44). Bestalde, kapitaleko diru-sarrerak 0,35 milioi handitu dira (ehuneko 109).

- Aurrekontuaren emaitza doitu, 27.193 euro negatibokoa, ehuneko 102 txikitu da 2022koarekin alderatuta (balio absolututan, 1,52 milioi). 2022an eta 2023an izandako bi aldaketa handiak zehaztu behar dira, aurreko atalean aipatu direnak eta lotura zuzena dutenak; gertatutako aldakuntza handia justifikatzen dute.

#### 4.3 UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2023-12-31N

Taula honetan, 2023ko ekitaldiko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk azaltzen dira, eta aurreko ekitaldikoekin alderatzen:

Adierazleak	2022*	2023	Aldea (%)
Aurrezki gordina	1.467.532	80.176	-95
Finantza-zama	42.954	375.272	774
Aurrezki garbia	1.424.578	-295.096	-121
Finantza-zamaren indizea	% 1,52	% 24	1.472
Aurrezki gordinek diru-sarrera arrunten gainean zenbat egiten duten, %	% 52	% 5	-90
Zor bizia	367.101	0	-100
Zorpetze-maila (zor bizia / diru-sarrera arruntak)	% 13	% 0	-100
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.680.595	917.898	-45
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubide garbiak)	% 67	% 33	-51

\*Auditatu gabeko ekitaldia

Aurreko koadrotik, adierazten dugu informazioa testuinguruan jarri behar dela, Enfasi-paragrafoan esan dugun eran, bi ekitaldien arteko aparteko aurrekontu-aldakuntzei dagokienez. Edonola ere, Udalaren finantza-egoera osasuntsu dago, finantza-zorrik ez duenez eta behar besteko likidezia baduenez.

#### 4.4 BARNE-KONTROLA

Aurrekontua exekutatzeko oinarrietan ezarrita dago kontu-hartzaitzak eginen dituela barne-kontrolako eginkizunak, hura osatzen duten hiru esparruetan: kontu-hartzaitza, finantza-kontrolako eginkizuna eta eraginkortasun-kontrolako eginkizuna.

Nahiz eta Udalean ez den betetzen finantza-kontrolako eta eraginkortasun-kontrolako eginkizunik, honako hau esanen dugu kontu-hartzaitzaren eginkizunari buruz:

- Ez dago eragozpen-oharrik.
- Gehigarriaren 4.2 apartatuan esan dugun eran, gure iritziz ez da egiten gainbegiratze eta kontrol gokirik kontuen formulazioaren oinarri den dokumentazioaren gainean.
- Ez da egin kanpoko aholkularitza-etxe batek egindako nominaren aurretzako fiskalizaziorik, eta horrek okerrak eragin ditu ordainsari-kontzeptu batzuetan. Barne-kontrolako sistemak ahuleziak ditu, eta, ondorioz, arriskuak dakartza, eta desagerrarazi edo ahalik eta gehien mugatu beharko lirateke horiek. Edonola ere, gehigarriaren 4.5 apartatuan azaldu den eran, zuzendu egin dira Ganbera honek bidegabeko ordainketak ohartarazitakoan.

- Orobat, barne-kontrolari eragiten dion kontu bat azpimarratzen dugu, hornitzaileen fakturen erregistroarekin lotutakoa. Ez dago ezarrita FACe<sup>4</sup> faktura-harrerarako. Hornitzaileek e-mailez bidaltzen dituzte fakturak, eta, gero, Udalak berak sartzan ditu Udalaren faktura-erregistroan, baina fakturaren datarekin.

Alde batetik, administrazio publikoei emandako zerbitzuen fakturak formatu elektronikoa aurkeztea derrigorrezkoa da 2015eko urtarrilaz geroztik<sup>5</sup>; eta, beste alde batetik, Udalak egiten duen fakturen erregistro- eta kontabilizazio-prozedurak ez du arrazoizko segurtasunik ematen gure lanean adierazteko betetzen direla araudian ezarritako ordainketa-epeak<sup>6</sup>.

Hori guztia dela-eta, hau gomendatzen dugu:

- *Urteko kontuen finantzen egoera-orriak formulatzeko dokumentazioaren prozesua hobeki gainbegiratzea eta kontrolatzea.*

- *Langileen nominak alde zuzenetik fiskalizatzea, nominen hileroko aldakuntzak gutxienez, eta hobeki gainbegiratzea kanpoko lan-arloko aholkularitza-etxeak egiten duen lana.*

- *FACe ezartzea, hornitzaileek emandako fakturak behar bezala erregistratzen direla ziurtatzeko.*

#### 4.5 LANGILERIA-GASTUAK

Udaleko langileria-gastuak 464.039 eurokoak izan ziren, eta haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 106 egin zuen. Ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 16 egiten dute, eta 34.562 euroan handitu dira aurreko ekitaldikoekin alderatuta; ehuneko zortzi, hain zuzen ere.

Hona aurreko ekitaldiarekiko alderaketa:

Kontzeptua	Aitortutako betebehargarbiak (ABG), 2022	ABG, 2023	Aldea	Aldea (%) 23/22
Gobernu-organoen oinarrizko ordainsariak eta beste ordainsari batzuk	20.700	39.397	18.697	% 90
Funtzionarioen ordainsariak	118.031	127.294	9.263	% 8
Lan-kontratupekoen soldadak	169.848	174.176	4.328	% 2
Sozietate-kuotak	120.899	123.172	2.273	% 2
<b>Guztira</b>	<b>429.478</b>	<b>464.039</b>	<b>34.562</b>	<b>% 8</b>

Aldaketa esanguratsuen den aldetik, azpimarratzen dugu gobernu-organoen ordainsarrietan izandako igoera honako arrazoi hauengatik izan dela:

- 2023ko maiatzaren 28ko udal-hauteskundearen ostean, eta behin horietako emaitzak bilduta, lau kide izatetik bost izatera igaro zen udalbatza.

- Lanaldi partzialagatiko ordainsaria ehuneko 6,4 handitu zen udalbatza berrian.

<sup>4</sup>Estatuko Administrazio Orokorraren faktura-sarrerarako puntu orokorra da FACe. Haren bidez, formatu elektronikoa dauden fakturak bidaltzen ahal zaizkie fakturak formatu elektronikoa hartzea onartzen duten eta alde zuzenetik sistematan alta eginda dauden administrazioei.

<sup>5</sup>25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzekoa.

<sup>6</sup> Ordaintzeko batez besteko epea betetzen dela iragartzen da. Iturria: <https://www.fontellas.es/periodo-medio-de-pago/>

## Plantilla organikoa

2023ko maiatzaren 8ko NAO n argitaratu zen Udalaren 2023rako plantilla organikoaren behin betiko onespena. Hauexek dira plantillako lanpostuak eta horien egoera 2023ko ekitaldiaren itxiera-unean:

Langileak	Udala
Plantillako lanpostuak	16
Beteta	12
Hutsik	4
<b>Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)</b>	<b>25</b>
Beteta dauden lanpostu hutsak	4
<b>Beteta dauden lanpostu hutsak (%)</b>	<b>100</b>
Bete gabeko lanpostu hutsak	0
<b>Bete gabeko lanpostu hutsak (%)</b>	<b>0</b>
<b>Aldi baterako kontratazioa (%)</b>	<b>% 25</b>

2023an, plantillako lau lanpostu daude hutsik; eta guztiak aldi baterako beteta daude. Behin-behine-kotasunaren indizea, kalkulatu aldi baterako betetako plazen eta behin betiko nahiz aldi baterako betetako plaza guztien arteko zatidura gisa, ehuneko 25ekoa zen.

Honako hau da plantillako lanpostuen araubide juridikoa:

Sailkapena	2022	2023	Aldea
Funtzionarioak	3	3	0
Lan-kontratudun langileak	12	13	1
<b>Guztira</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>1</b>

Zerbitzu anitzetako langilearen lanpostu bat (E mailakoa eta lan-araubidekoa) sortu izanak eragin du bi ekitaldien arteko aldea.

## Egonkortzearen azterketa

Enplegu publikoaren egonkortze-prozesua aztertu dugu aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan. Udala foru lege horren II. tituluaren aplikaziora atxiki zen 2022ko urriaren 10eko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez.

Honako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- Udalak 12 plaza egonkortzeko lan-eskaintza publiko bat (aurrerantzean, LEP) onetsi zuen, 2022ko maiatzaren 17ko NAO n argitaratua; eta, horrenbestez, bete zuen araudian ezarritako epemuga, zeina 2022ko ekainaren 1a baitzen. Honako plaza hauek osatzen zuten LEPa: bederatzi musika-irakasle plaza, liburutegiko arduradun bat lanaldi partzialean eta lanaldi osoko beste bi plaza, bata kirol-monitorearena eta bestea zerbitzu anitzetako langilearena.

Plaza horiek betetzeko, merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidezko deialdi bakar bat onetsi zen. 2022ko azaroaren 7an argitaratu zen, legeak dioenarekin bat, zeinak 2022ko abenduaren 31 ezartzen baitzuen epemugatzat. Ez zitzairen errekurtsorik aurkeztu ez LEPari ez deialdiari.

Gure azterketan, honako hauek egiaztatu ditugu:

- Egonkortze-prozesuaren xede izan ziren 12 plazetatik, hutsik gelditu ziren bi; hortaz, hamar plaza egonkortu ziren.

- Probak gaitutako langileak izendatuak izan ziren, eta haien lanpostuak 2023ko martxoan eta 2023ko urrian esleitu ziren, horretarako ezarritako epean.

- Aztertu dugun laginetik, ondorioztatzen dugu LEP horretan sartutako plazek bete egiten dituztela araudian ezarritako baldintzak. Alabaina, ikusi dugu izaera ez-jarraituko plaza bat lanaldi

osoko plaza gisa sartu zela egonkortze-prozesuan, eta espedientean ez zela jaso aldaketa hori justifikatzen zuen arrazoirik.

Honako hau zen egoera 2023ko abenduaren 31n:

Saillapena	Lanpostu-kopurua	Langileak Aktibo	Hutsik	Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	Bete gabe dauden lanpostu hutsak
Funtzionarioak	3	2	1	1	0
Lan-kontratadun langileak	13	10	3	3	0
<b>Guztira</b>	<b>16</b>	<b>12</b>	<b>4</b>	<b>4</b>	<b>0</b>

Informazio hori kontuan hartuta, nahiz eta behin-behinekotasuna ehuneko 25ekoa izan, hau adierazten dugu:

- Idazkari kontu-hartzailearen plaza ez da sartzen egonkortze-prozesuetan, toki-erakundee-tako idazkarien plazak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (aurrerantzean, NFKA) emandako dagokion gaikuntzaren bidez betetzen baitira.

Horri dagokionez, adierazten dugu aipatu gaikuntza-prozesua epaiaren zain dagoela –konstituzionaltasun-arazoa ebatzitakoan–, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak konstituzio-kontrakotasuneko arazo bat planteatu baitzuen maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legearen bi artikuluri buruz<sup>7</sup>.

- Bi plaza bete gabe gelditu ziren; kasuetako batean, izangaiak ez zuen plazaren jabetza hartu, eta bestean, izangaiak epez kanpo aurkeztu zuen dokumentazioa.

#### **Aldi baterako kontratazioaren azterketa**

Udalak aldi baterako hamar kontratu egin zituen, behar desberdinei erantzuteko; zehazki, udasasoira sei pertsona kontratatu zituen udal igerilekuetarako; bi musika-irakasle, 2023-2024 ikasturterako, lanaldi partzialean; eta beste bi, zerbitzu anitzetarako, sei hileko iraupenez. Aztertutako laginean ikusi dugu langile-hautaketa egin dela kasuko hautaprosua egin ondoren.

#### **Langileria-gastuaren egiaztapenak**

Nominak kanpoko lan-arloko aholkularitza-etxe batek egiten ditu. Gero, Udalari bidaltzen dizkio artxiboak, kontabiliza eta ordaindu ditzan.

2023ko urriko nominako ordainsari-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu<sup>8</sup> 26 pertsonari buruz, 20.755 euroko zenbatekoa egiten duena; aipatutako nominaren ehuneko 89 da hori.

<sup>7</sup> 16/2022 Foru Legea, maiatzaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

<sup>8</sup> Oinarritzko soldata, antzinatasuna, zenbait osagarri –maila eta lanpostuko osagarriak, familia-laguntza, antzinatasuna, konpentsagarria, irakaslea (musika-irakasleentzat), berariazkoa eta aparteko orduak–.

Aipatutako azterketan, egiaztatu dugu ordainsari-kontzeptu guztiak bat datozela plantilla organikoan aurreikusitakoekin, eta pertsona bakoitzari zuzen ordaindu zaizkiola betetzen duen lanpostuaren eta bere inguruabarren arabera, honako egoera hauetan izan ezik:

a) Plantilla organikoan, lanpostuko osagarrian sartzan da mailako osagarria, baina, berez, kontzeptu horiek xehatuta jaso behar dira.

b) Ez daude langile guzti-guztien espediente administratiboak.

c) Familia-laguntzaren osagarria bidegabeki ordaindu da kasuren batean. Era berean, familia-laguntza PFEZaren oinarrian sartuta dago; hori horrela, atxikipena aplikatzen zaio berez salbuesita dagoen errenta bati.

d) Ez zaie antzinatasunik ordaintzen langile lan-kontratudunei, ez baitaie kontuan hartu zerbitzu ematen igarotako denbora.

Jakinarazten dugu c) eta d) letretan ohartarazitako urritasunak erregularizatu zituela Udalak 2025eko urtarrilean.

Alabaina, eta aipatutako erregularizazio hori egin bada ere, gure ustez, Udalak kontrol handiagoa izan behar du nominak egiteko prozesu osoan, arriskuak minimizatze aldera.

Horren guztiaren ondorioz, hau gomendatzen dugu:

- *Bereizita identifikatzea mailako osagarria eta lanpostuko osagarria.*
- *Langile publiko guztien espediente administratibo egokia eta osatua izatea.*
- *Hileroko kuotak aurrez fiskalizatzea, egiten diren hileko aldakuntzak gutxienez. Eta, horrez gainera, gainbegiratze- eta kontrol-mekanismo eraginkor bat ezartzea, ez dadin errorerik izan, eta, beraz, ezta bidegabeko ordainketarik ere.*

#### 4.6 ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak 1.012.570 milioikoak izan ziren. Ekitaldian airtortutako betebeharrak guztien ehuneko 35 egiten dute, eta haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 108koa izan da. Horri dagokionez, "Legedi-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria" paragrafoan adierazi dugun eran, kreditu jakin batzuen betetze-mailak bidegabeki gainditu ditu behin betiko kredituak.

Honako taula honetan, aurreko ekitaldiko gastuen betetze-mailaren aldakuntza jaso da:

	2022	2023	Aldea	2023/2022 aldea (%)
Zenbatekoa	912.714	1.012.570	99.854	11

#### Kontratazio administratiboa

Lagin honen kontratu-klausulen aplikazioa aztertu dugu:

Kontratua*	Prozedura	Lizitazio-kop.	Balio zenbatekoa	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	Beharpena
0-3 urtekoen ikastetxearen kudeaketa	Irekia, Europar Batasunean publikiziterik egin gabe	1	703.499	70.350	70.350	-
Udal-eraikinen garbiketa	Irekia, Europar Batasunean publikiziterik egin gabe	5	206.138	47.228	39.801	% 16

\*2022an esleitutako kontratuei dagozkie

Gure azterketan ikusi dugunez, oro har, kontratu-klausuletan ezarritakoaren arabera egin da fakturazioa.

## Munta txikiko kontratuak

Gure lana izan da munta txikiko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak aztertzea.

Azterketa horretan ikusi dugunez, zerbitzu-emate batzuk munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez izapidetu dira bidegabeki, ekitaldi bateko edo batzuetako balio zenbatetsiak gainditu egiten baititu apirilaren 4ko 23/2018 Foru Legean, Kontratu Publikoari buruzkoan (aurrerantzean, KFL), ezarritako mugak; "IV.2 Legedi-betetzeari buruzko aldeko salbuespendun iritziaren oinarria" paragrafoan zehaztu dira.

Edonola ere, honako hau adierazten dugu aipatutako hornidura eta zerbitzuei buruz:

- Energia- eta gas-hornidurari buruz, Ganbera honek azpimarratu nahi du horren lizitazioaren zailtasuna, merkatu-prezioaren gorabeheren ondoriozkoa. Udalak ez zituen hornidura horiek araudian ezarritakoaren arabera lizitatu; dena den, positiboki baloratu behar da prezioak eta kontratazioak konparatu zituela enpresa hornitzaile desberdinen artean.
- Gainerako kontratuei dagokienez, adierazten dugu 2025ean Nafarroako Kontratazioaren Atarian ageri denaren arabera lizitatu direla; horrek esan nahiko luke erregularizazio bat egin dela txosten honetan ohartarazitako urritasunetan.

Beste alde batetik, munta txikiko kontratuak kontratazio-atarian argitaratzeko betebehari dagokionez, hau azaldu nahi dugu: nahiz eta udalak faktura-zerrenda argitaratzen duen hiru hilean behin, beste prozedura batzuen bidez esleitutako kontratuei dagozkien fakturak ere sartzen dira zerrenda horretan.

*Gomendatzen dugu Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen diren munta txikiko kontratuen hiruhilekoko zerrendetan zera sartzea, araubide horren bidez esleitu diren kontratuak soilik.*

### 4.7. INBERTSIOAK

Inbertsioak 995.925 eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako betebehari guztien ehuneko 35 dira, eta horien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 87 egin du. Hasierako kredituek 587.000 euroko gehikuntza izan dute gastuen aurrekontuari egindako aldaketan bidez; hori horrela, behin betiko kredituen guztizko zenbatekoa 1.144.000 eurokoa izan da.

Aitortutako gastuaren igoera ehuneko 109koa izan da aurreko ekitaldiarekiko; kopuru absolututan, 519.473 euro.

Honako kontratu-lagin hau fiskalizatu dugu:

Kontratua	Prozedura	Lizitazailakop.	Esleipen-irizpidea	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	Beharpena
Eguneko zentroa	Irekia, Europar Batasunean publizitaterik egin gabe	2	Prezioa	429.370	379.992	% 12
Bidegorria eraikitzea	Irekia, Europar Batasunean publizitaterik egin gabe	1	Prezioa	78.150	64.794	% 17

Egindako azterketatik, "IV.2 Zuzenbide-betetzeari buruzko aldeko salbuespendun iritziaren oinarria" paragrafoan esandakoaz gainera, hau adierazten dugu:

- Nahiz eta espedienteetan ez duten esleipendunaren aukeraketan eragin, eskaintzak baloratzeko erabilitako formulak puntuak esleitzen ditu, prezioan beharpenik egin ez bada ere; horrek ez du horrela izan behar.
- Kontratazio Atarian ez dago jasota ebaluazio-txostenaren iragarpenik, KFLk eskatu egiten duen arren.

Hori guztia dela-eta, hau gomendatzen dugu:

- *Pleguetan, lizitazio-zenbatekoa berdintzen duten eskaintzei punturik ematen ez dien formulak ezartzea balioespen ekonomikorako.*
- *KFLk eskatzen duen amaierako ebaluazio-txostena argitaratzea Kontratazio Atarian.*

#### 4.8 TRANSFERENTZIA-GASTUAK

Taula honetan jaso dira gastu-kapitulu honetako betetze-maila eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa:

Kontzeptua	2022	2023	Aldea	Aldakuntza (%)
489 Beste transferentzia batzuk	9.776	10.296	520	% 5,3

Transferentzien kapituluaren xedetik, 2.646 euroko zenbatekoz Eder Partzuergoari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari ordaindutako kuotak salbu, gainerakoa, 7.650 euroko zenbatekoa duena, elkarte-izaerako 12 entitateri emandako dirulaguntza izendunei dagokie.

Lagin bat aztertu dugu, eta, ikusi dugunez, Udalak:

- Ez du onetsita dirulaguntzei buruzko plan estrategikorik.
- Alkatearen ebazpen bidez ordaintzen dira aurrekontuak dirulaguntza izendun gisa jasotzen dituenak, aurrez onuradunak faktura bat eta horren ordainketaren ziurtagiria aurkeztuta. Ez da agertzen aurrekontuaren exekuzio-oinarriek eskatutako dokumentazio hau:
  - Onuradunek zerga-betebeharrak beteta dituztela frogatzeko agiria.
  - Jarduera-proposamena.
  - Egindako jardueren oroitidazkia.

Ez dago hitzarmenik, honakoak jasotzen dituenik: emakidaren baldintzak eta dirulaguntzaren justifikazioa, diruz lagundutako jardueraren baldintzak eta onuradunari eskatzen zaizkion konpromisoak.

Hori guztia dela-eta, hau gomendatzen dugu:

- *Nahitaezkoa den Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onestea, araudiak eskatzen duen eran.*

#### 4.9 TRIBUTUAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Tributu, prezio publiko eta bestelako diru-sarrerengatik 2023ko ekitaldian aitortutako eskubideak 797.769 eurokoak izan ziren. Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 38 egiten dute, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak		Betetzea (%)	2023/2022 aldea (%)
	2022	2023		
Zuzeneko zergak	595.728	608.021	110	2
Zeharkako zergak	1.368.634	23.887	156	-98
Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	151.665	165.861	127	9

**Zergak**

Zergak Udalaren diru-sarrerera guztien ehuneko 30 egiten dute, eta honako hauek dira:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak (AEG)	Guzt. gain. % AEG	2023/2022 aldea (%)
<b>Zuzeneko zergak</b>	<b>608.021</b>	<b>29</b>	<b>2</b>
Lurraren kontribuzioa	400.611	19	-11
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak	104.349	5	276
Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	71.180	3	6
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	31.880	2	2
<b>Zeharkako zergak</b>	<b>23.887</b>	<b>1</b>	<b>-98</b>
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	23.887	1	-98

Udalak aplikatutako zerga-tasak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak (TOFL) jasotzen duen sortako goiko tartean kokatzen dira, taula honetan ikusten den eran:

Tributu-figura	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,33	0,25 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	21	8-25
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	4,2	2-5

Egin dugun azterketaren ostean, honako hau adierazten dugu:

- Zergen bidezko diru-sarreretan egondako aldakuntzak honako arrazoi hauekin daude lotuta nagusiki:
  - a) Lurraren kontribuzioan, ordainagirien ezeztapen eta baja justifikatuak egin dira 15.247 euroko zenbatekoz. Gainera, 2023an, beheratu egin zen zerga-tasa 2022koarekin alderatuta.
  - b) Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zergak, zerga-oinarriaren izaerak berak egiten du ez dadila egonkorra izan aurrekontu-ekitaldi batetik bestera; beraz, urtetik urterako aurrekontu-aldakuntzak arrazoizkoak dira.
  - c) EIOZi dagokionez, "Enfasi-paragrafoa"-n identifikatu da aurreko ekitaldiarekiko aldea.
- Azkeneko zerga-ikuskapeneko plana 2012ko ekitaldian onetsi zen.
- Zergen kudeaketa eta horien kontabilizazioa, likidazioa eta borondatezko bidean eginiko kobrantza behar bezalakoak dira.

**Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak**

Tasek, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak 165.861 euro egin zuten; Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko zortzi. Taula honetan azaltzen dugu tasen eta gainerako diru-sarreraren desagregazioa:

Kontzeptua	AEG	AEGen guztiz-koarekiko %	2023/2022 aldea (%)
Tasak eta prezio publikoak	61.471	3	-7
Beste diru-sarrera batzuk	104.390	5	22

Diru-sarreraren kapitulu honetan, ez dugu hauteman garrantzi handiko gairik.

**4.10 TRANSFERENTZIENGATIKO DIRU-SARRERAK**

Transferentzia arruntengatiko eskubide garbi aitortuak 594.585 eurokoak izan ziren, eta kapital-transferentziengatikoak, 542.816 eurokoak; guztira, diru-sarrera guztien ehuneko 54 egin zuten. Aurreko urtearekiko konparaziozko datuek honako alde hauek erakusten dituzte:

Kontzeptua	AEG		2023/2022 aldea (%)
	2022	2023	
Transferentzia arruntak	584.524	594.585	2
Kapital-transferentziak	197.454	542.816	175

Hirigintzari dagokionez, honako hau nabarmentzen dugu:

**Transferentzia arruntak**

- Toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkidurari dagokion finantziazioa 479.724 eurokoa da; diru-sarreraren kapitulu horren ehuneko 81 da hori.

- Gainerakoa dagokie jasotako zenbait dirulaguntzaren inguruko diru-sarrerei. Dirulaguntza horien kontabilizazioari dagokionez:

- Ez da kontabilizatu Haur Eskolen 2023/24 ikasturteko dirulaguntza, 2024ko urtarrilaren 3an kobratua 83.144 euroko zenbatekoz, eta NFKAk 2023ko abenduan aitortua.

- Bestalde, Udalak aurreko ikasturteko dirulaguntza aitortu zuen 2023ko urtarrilean, eta NFKAk 2022ko abenduan, 36.443 euroko zenbatekoz.

- Aldakuntza horien arteko aldeak esan nahi du 2023an 46.701 euro gutxiago aitortu direla diru-sarretan.

Horri dagokionez adierazten dugu ezen, kontabilitate- eta aurrekontu-araudiaren arabera, entitate onuradunak lehenago aitortzen ahal duela eskubidea, baldin eta ziur badaki entitate emaileak jaulki egin duela bere betebeharrak korrelatiboaren aitortpen-egintza.

**Kapital-transferentziak**

Kapital-transferentzien aldakuntza gertatu da, funtsean, NFKAk honako sarrera hauek egin zituelako 2023an:

- Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren (SEM) funtsak, 234.387 euroko zenbatekoz.
- 110.000 euroko finantziazioa Egunekeko Zentroaren ekipamendurako.

Egindako lanetik ondorioztatzen dugu diru-sarreraren kontabilizazioa zuzena dela, transferentzia arruntak buruz esandakoa salbu.

Hori guztia dela-eta, hau gomendatzen dugu:

- *Transferentzien eta/edo dirulaguntzengatiko eskubideak diru-sarreraren aurrekontuan aitortzea entitate onuradunak jakiten duenean entitate finantzatzaileak aitortu egin duela betebeharra.*

#### 4.11 ONDARE BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Taula honetan jaso dira diru-sarreraren kapitulu honetako betetze-maila eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa:

Kontzeptua	Izena	2022	2023	Aldea	Aldakuntza (%)
520	Gordailuen interesak	60	4.011	3.951	6.585
541	Hiri-finken errentamenduak	3.031	5.022	1.992	66
542	Landa-finken errentamenduak	94.999	145.099	50.100	53
554	Nekazaritza, baso eta herri-lurren aprobetxamenduak	5.728	4.108	-1.620	-28
599	Ondare bidezko beste diru-sarrera batzuk	15.132	16.486	1.354	9
		118.950	174.726	55.777	47

Txosteneko Enfasi-paragrafoan adierazi da 2022ko ekitaldian parke eoliko bat instalatu zela udal-dermioan, eta aparteko EIOZ baten bitartezko ordainketa ekarri zuela horrek.

Halaber, azpimarratzen dugu parke hori instalatu izanak herri-lur baten erabilera-lagapenagatiko urteroko diru-sarrera bat jasotzeko eskubidea ekarri diola Udalari, 30 urteko eperako. 2023ko ekitaldian aitortutako diru-sarrerak 56.775 eurokoak izan ziren.

Egin dugun azterketaren arabera, 2023ko ekitaldi hori izan da aipatutako eskubide hori likidatu den lehenengo ekitaldia, 2022ko abenduaren 1eko kontratu-agirian jasota dagoenez; diru-sarrera berri horrek justifikatzen du diru-sarreraren kapitulu honetan izandako ehuneko 47ko aldakuntza.

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK****Fontellasko Udalarari Buruzko 2023ko Behin-Behineko Fiskalizazio-Txostenari Aurkeztutako Alegazioen Txostena**

Eskerrak ematen dizkiegu landa-lana egin duten Kontuen Ganberako langileei lan honetan parte hartu duten Udaleko langileei emandako tratuagatik.

**- Egoera ekonomiko-finantzariora:**

Fontellasko Udalak ulertzen du Udalaren egoera ekonomiko-finantzariora, oso gai garrantzitsua dena, ez dagoela behar beste landuta txostenean. Izan ere, txostenaren 27. orrialdean jasotako hau besterik ez da esaten horri buruz: “Edonola ere, Udalaren finantza-egoera osasuntsu dago, finantza-zorrik ez duenez eta behar besteko likidezia baduenez”. Faltan botatzen dugu txostenean apartatu batean modu esanguratsuan jasotzea bere kontuek erakusten duten egoera ekonomiko-finantzario osasuntsua.

Bestalde, zenbait apartatutan behar bezala azaltzen dira 2023an parke eolikoaren EIOZaren diru-sarreragatik izandako aldakuntza esanguratsuak; baina, horrela, badirudi Udalaren oparoaldia horren ondorio dela, eta, egiazki, diru-sarrera hori jaso baino lehenago ere guztiz osasuntsua zen jadanik Udalaren egoera ekonomiko-finantzariora.

Hori horrela, honako datu hauek gehitu nahi ditugu, behar bezala islatzen baitute Fontellasko Udalak 2023ko ekitaldi fiskalizatuaren aurretik eta ondoren zuen egoera ekonomiko-finantzariora.

Udalak 2023-12-31n zuen egoera ekonomiko-finantzarioari dagokionez, behin-behineko txostenean adierazten den eran, komeni da informazio ekonomikoa testuinguruan jartzea, 2022tik 2023ra izandako ezohiko aurrekontu-aldaketak direla-eta.

Hori horrela, iruditzen zaigu komenigarria dela Udalak 2022koa baino lehenagoko ekitaldietan izaten zituen datu ekonomikoak azpimarratzea.

2022ko ekitaldi horretan ez bezala, zeinean ia 1.370.000 €bildu baitziren, salbuespen gisa, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergagatik, kontzeptu horretako diru-sarrerak askoz ere txikiagoak izan ohi ziren (urteko 10.000ren eta 30.000 €ren artekoak). Hala ere, Udalak beti izan du behar besteko marjina bere baliabideak sortzeko eta gastua mugatzeko, eta finantziario-ahalmen nahikoa eta gehiago izan du zorretan sartu gabe inbertsioei ekiteko.

Entitate honek itundutako azken mailegua 2011n izan zen, zenbait obra finantzatzeko eskatu baitzuen (horren aurretik, mailegu bat eskatu zion BBVAri 2004an, eta beste bat Nafarroa Kutzari 2010ean). Orduz geroztik, inbertsio asko egin dira udalerrian, Udala zorretan jarri gabe.

Hain zuzen ere, ikusten da udal-kontuetan behar beste lasaitasun eta likidezia egon dela azken urteotan:

- 2018/12/31n, bankuetako izakina 507.000 bat eurokoa zen; zor bizia, 534.000 bat eurokoa, eta zorpetze-maila % 6koa soilik, % 21eko mugatik behera. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 602.000 euro ingurukoa zen.

- 2019/12/31n, bankuetako izakina 475.000 bat eurokoa zen; zor bizia, 458.000 bat eurokoa; eta zorpetze-maila, % 6koa soilik, % 15eko mugatik behera. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 323.000 euro ingurukoa zen.

- 2020/12/31n, bankuetako izakina 796.000 bat eurokoa zen; zor bizia, 427.000 bat eurokoa; eta zorpetze-maila, % 3koa soilik, % 25eko mugatik behera. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 500.000 euro ingurukoa zen.

- 2021/12/31n, bankuetako izakina 857.000 bat eurokoa zen; zor bizia, 397.000 bat eurokoa; eta zorpetze-maila, % 2koa soilik, % 22ko mugatik behera. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 654.000 euro ingurukoa zen.

- 2022/12/31n, bankuetako izakina 2.015.000 bat eurokoa zen; zor bizia, 367.000 bat eurokoa; eta zorpetze-maila, % 1,5ekoa soilik, % 52ko mugatik behera. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 1.680.000 euro ingurukoa zen.

- 2023/12/31n, bankuetako izakina 920.000 bat eurokoa zen, eta zor bizia, 0 eurokoa. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 918.000 euro ingurukoa zen.

Hau da, 2022an parke eolikoaren EIOZari zegokion aparteko diru-sarrera jaso aurretik ere, Fontellasko Udalak 857.000 euroko izakinak zituen bankuetan, eta haren zorpetze-maila % 2koa zen.

Hortaz, 2023ko egoera finantzarioa ez da diru-sarrera horren ondoriozkoa; eta, txostenean ongi adierazten den eran, egoera erabat garbia da, zorrik gabekoa eta likideziaduna.

#### **- Txostenean jasotako salbuespenak aintzat hartzea:**

- Kontuen Ganberak 2023ko Aurrekontu-emaiztaren egoera-orriko eta Emaizta ekonomikoaren egoera-orriko kalkuluan adierazitako datu ekonomiko hobeak hartu dira kontuan, Kontu Orokorraren espedientean ageri direnen orde. Izan ere, hutsegitez, egin gabe gelditu ziren ekitaldiaren behin betiko itxieraren prozesua abiarazi aurretik egin izan beharko ziren aurretiko zenbait doikuntza eta egiztapen.

- Kontuan hartu dira Kontabilitate Balantzean eta udalerriko Ondasunen eta Eskubideen Inbentarioan egiteko proposatutako doikuntzak eta zuzenketak, bat-etortze ahalik eta handiena egon dadin bi dokumentuen artean.

- Ahaleginak eginen dira ekitaldian zehar sortzen diren aurrekontu-aldaketak behar besteko aurrerapenez izapidetzeko, urte bakoitzeko abenduaren 31n lotura-poltsa jakin batzuk ez daitezen gaindituta ager.

- Diruzaintza-gerakinarekin finantzatzen diren aurrekontu-aldaketei prozedura-tratamendu berezia emanen zaie, baita osoko bilkura berean suertatzen badira ere ekitaldiko aurrekontuaren onespenera dagozkionekin.

- Kontuen Ganberak dioen eran, komenigarria iruditzen zaigu Osoko Bilkurak dirulaguntzei buruzko plan bat onestea eta hitzarmen arautzaile bat izenpetzea dirulaguntzen balizko onuradunekin.

- Kontuen Ganberak gomendatu bezala, errekaru exekutiboa eta berandutze-interesak exijituko dira diru-biltzaile exekutiboari bidali baino lehen.

- Barneko egiztapen-sistema bat ezarriko da, abisuak edo alarmak aktibatuko dituen udal-langileen egoera pertsonaletan edo gertakarietan aldaketak egoten ahal direla aurreikusten den datetan, aldaketa horiek haien nominetan eragina izaten ahal badu, ahalik eta koordinazio handiena izateko nometz arduratzen den kanpoko lan-arloko aholkularitza-etxearekin.

- Kontu Orokorra egitean, Ganberak aipatzen dituen txosten horiek gehituko zaizkio espedienteari.
- Kontu guztien sinadura mankomunatua eskatuko zaie Udalarekin lan egiten duten banketxe guztiei. Era berean, kontabilitatean baja eginen zaie zero saldoz oraindik ageri diren eta bere garaian bertan behera utziak izan ziren kontuei.
- Aplikatzeko zeuden aurrekontuz besteko saldoak guztiz garbiturik utziko dira (gaur egun aurkituta daude gehienak).
- Duela lau urte baino lehenagoko ekitaldi itxietako kobrantzak dagokien ekitaldian kontabilizatuko dira. Era berean, itxitako ekitaldi zaharragoetako saldoak guztiz garbituta utziko dira.
- FACe-ren ezarpena itzuliko da.
- Fakturen hiruhilekoko zerrendari dagokion dokumentazioaren igorpena garbitzeko ahalegina eginen da, eta munta txikiko kontratuei buruzkoak bakarrik sartuko dira (kontabilitate-atalak sortutako Excel zerrenda irauliko da horretarako).

Fontellas, 2025eko maiatzaren 5a

Alkate udalburua

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA**

Eskerrak ematen dizkiogu Fontellasko alkateari aurkeztutako alegazioengatik, zeinak behin-behineko txostenean sartu baititugu; horrela, behin betiko gisa ematen da txostena, ulertzen dugulako egindako fiskalizazioaren azalpena direla eta ez dutela edukia aldatzen.

